

1968: Ezkerrak nola galdu zuen bere testua

Joxe Azurmendi



Niretzat 1968an ezkerrak bere testua galdu zuen (batzutan «paperak» galtzen diren moduan, edo «fedea» galtzen omen den eran). Baina hori etapaka agertu da.

Zer interesatzen zaigu oraindik maiatz hori? Zer dago esateko, esan ez denik?

1. Hasteko, bi puntu: orain esaten ari dira batzuek, «iraultzaren eredurik» ez dagoela, egungo krisi modu bat bagenu bezala hori (a); beste batzuek, politika beti helburu eta proiektu handiez aritu dela, ordua dela gizabanakoaz arduratzeko, pertsonaz, indibiduoaz (b).

Niretzat hori dena 68ra hogeitaz atzeraturik iristea bezalatsa da.

(b") Politikak egia da gizabanakoa zabartu duela, gizabanako heinean. Kontua da, ez al duen definitzioz horixe egin behar.

Alegia: koletibitateak eta ideia haundiak utzi, eta hemen azkenean pertsonak besterik ez dagoela, gizabanakoak garela, oso kristaua da, beharbada liberal burgesa, onenean existentzialismoa. Ez da grekoa, esate baterako. Beharbada ez da politikoa ere. Bakarrik egoten gara gure tristurarekin, norbere buaren aurrean. Bakoitza bere-bere kontzientziare-

kin, nortasunarekin eta erruarekin, «Jainkoaren» aurrean egoten gara, eta ezerk ez gaitu bakartasun horretatik libratzen. Bakoitzak bere kontu eman behar du. Baina hori erlijioa da, eliztarra izan ala zibila. (Esperientzia mailan: norbera bakar-bakarrik hiltzen da bakoitza). Horretarako, ordea, Mariaren Alaben Kongregazioa sortzen da, eta Luistarrena. Ez Alderdi bat. Bakoitzaren banakotasun eta bakartasun sentimentuari unibertsoan errespetua dionak, bera fededun izan nahiz ez izan, errespetua izango dio guzti horri, bakoitza bere buruarekin edozein eratan konfrontatzeari. Beste norbait mendigoizale bihurtuko da, itsasoa egongo da kontenplazten, psikiatraren laguntza bilatuko du. Pertsona «pribatuaren» kontuak dira. Eta ez genuke nahi, ez erlijioak politikan interbenitzea, eta ez politikak esfera pribatua inbaditzea (gehiegi egiten du).

Pertsonaren beste alderdi bat soziala da, kolektiboa, eta honetarako bakarrik behar dugu politika. «Polis» hiria da: politikaren arazoak hirikoak dira. Ez dira etxeak eta gutxiago bihotz barnekoak. Hiria, gero, humanoa nahi dugu: ez makina bat.

(a") Iraultzaren kontzeptu moderno guztiak, Estatu edo gizarte ahalik eta arrazoizkoenaren ereduak izan dira. Produktio modu ahalik arrazoizkoenaren modeloak gehienbat, beste guztiak handik zegoelakoan harreman sozialetan. Arrazoizkotasunaren kriterioa zen beti erizpide nagusia. Arrazoizkotasuna bera, ordea, Descartes-ek eta XVI-XVII. mendeetako matematizismoaz gero, modu matematiko geometriko batean ulertzen zen. Ondorio zen, gizartearentzat ere perfekzio matematiko geometriko bat bilatzen zela. Makina bat.

Arazoa ez da, honez gero, Sobiet Batasun-eko iraultza ereduak ez duela balio izan Txina-rako, Cuba-rako, Nicaragua-rako. Herri bakoitzak bilatu behar duela bere ereduak. Baizik eta, ez Sobiet Batasun-eant bertan, ez Txina-n, ez Nicaragua-n, arrazoizkotasunaren eredu zaharrak balio duela, hark nahitaez Botere modu errepresibo berriak sortzen dituelako beti. Arrazoizkotasun moderno europarraren historia, tirania geroz eta perfektoagoen historia izan da, Luis XIV.etik Ausschwitz eta Gulag-era.

Hori al da, «postmodernia»rekin orain deskubritzen ari garena?


«Erromatar Inperioa, Erdi Aroko papismoa, Subirano Absolutuak, Napoleon eta XIX. mendeko inperialismoa, nazismoa eta komunismoa, dena ez da «guera de sucesión» bat besterik... Karitatea predikatuz Inkisizioa ezarri zen; askatasuna predikatuz, tirania burgesa eta faxismoa; berdintasun soziala predikatuz stalinismoa eta kontzentrazio zelai sobietarrak». Esajeratua da bere sinplismoan, baina hori, euskaraz, 1978an dago aitortuta (**Jakin** 8, 1978, 68), orain hamar urte. Eta orain hamabost urte seinalatzaren zuen Joan Mari Torrealdai-k, **Iraultzaz** liburuan (1973,182) Rikardo Arregi eta M. Rocard aipatuz, «Iraultzaren eredurik-eza». Eta are lehenago, 68 ondorenean bertan, ikus K. Santamaria-ren «Dimensio bateko gizona» (**Jakin** 35, 1969, 17-24): gaurko zibilizazioa «gizon konkretuaren ukazioa» da. Beraz, lelo zaharrak dira, eta orain jende bat berriro Mediterraneo hauek deskubritzen ikusteak, desenkantatu bakarrik egin gaitzake. Ik., halaber, **Punto y Hora**, «¿El fin de los modelos?», No. 516, 56-57.

Ez noa historia bat egitera, Rikardo Arregi-rekin hasi eta, nola hori dena euskal mogimenduan lehendik egin dagoen, erakusteko, 68tik aurrera burutu zen gogoetan. Eta ez dut esan nahi ondo egin zenik, ez aski eginda geratu zenik. Egin zela. Oso zaharra da: iraultza ez da ikasten: egin egiten da. Askatasuna konkistatu egiten da: ez du inork erregalatzeko. Hiritarra paperezkoa da: askatasun eta duintasun beharrezko haragizkoak pertsonok gara. Iraultzaren eredu zahar abstraktuen kritika, Moderniarena, arrazoizkotasunaren modelo hertsagarriarena, eta gizatasun pluridimentsionalaren errebindikapena, tradizio humanista libertariena, etab., eta gure askatasunaren kontzeptua guk geuk bururatu behararen aitortza, autogestioz, inongo modelook baztertuta.

Iraultzaren eredu klasikoetan «gizadiaren modelo» unibertsalak pentsatzen ziren. Utopia hori da utzita dagoena *ad calendae graecas*: 1) unibertsaltasun pretentsioa zampakor itogarria agertu delako; 2) ez dirudielako, politikaren eginkizuna denik, gizakiaren «natura» aldatzea, aingeru bihurtzeko.

Eztabaida eta «deslilurapen» guztiok 68 ondoko bertakoak izan dira. Horregatik esaten dut, ezkerrek bere testua orduan galdu zuela. Orain berriro 68az mintzatu nahi bada, hogeigarren urtearen aitzakiaz, nik ez dut interes berezirik aurkitzen memoria melankoliko batean (ez dakit *laudatores*, ala *detractores temporis acti*), ez dut historiari, ez gorazarre-rik entseiatuko. 68ko iraultza ez zen iraultzarik izan. Eta ezer izan bazen, Estatuak jan du. Ikusiko dugu gero.

2. 1968an Alemania-n nengoen ni eta maiatza Münster-ko Unibertsitatean bare antza ezagutu nuen. Beste euskaldun batzuk Paris-en edo ez dakit non zeuden. Eta beste asko Euskal Herrian zebilen, klandestinitatean, Derio-ko protesta mogimenduan, etab., edonolako borrokatan, frankismoaren baldinkizunetan. Exiliatu mordo bat ere bazegoen. Esan nahi dut: guretzat 68ko maiatz diferenteak egon dira, ez dago 68ko maiatz batik. Hau seguru asko inportantea da, gero gertatu zenerako.



Alemania, badakizue, bi zatitan zatitua dago eta bat komunista da, bestean beldur panikoa dago komunismoari. Bestetik, baina, komunismoak, tradizio iraultzaileak, «ortodoxia» kautskyanoa eta leninista haundiak aparte, bere historia ez-leninista iraultzaile garrantzizkoa du Alemania-n (Rosa Luxemburg, Liebknecht, etab.), disidentzia forma desberdin prestigioekin orobat (K. Korsch, A. Pannekoek, W. Reich) Alemania-n Marx bere modura irakurtzen da, hortakoz, beharbada beste leku batzuetatik bestela samar, ez nago seguru. 68an, gainera Marcuse, Horkheimer eta, orohar, Frankfurt-eko Eskola, oso presente zeuden, nolabaiteko «neomarxismoak» edo marxismo autokritikoak. Dena dela, 68ko maiatza, Alemania-ko Unibertsitateetan hasi bazen, Paris-ekoetan bihurtu zen «68ko maiatza». Nire ikuspegi beharbada periferiko samarra izan zen eta da zu-

rrunbilo guzti honi buruz, horregatik. Ez Marx-engatik, esan nahi dut, eta ez maiatz harengatik sentitu nuela, alegia, entusiasmo apartekorik. Baina gogoratu nahi nuke, kapitulu guzti honetan beste periferia bat Euskal Herria zela (barruko jende guztiak), eta niretzat bera dela inportanteena. 68an Etxebarrieta hiltzen da. ETA larri dabil. Geroxeago zatiketa berriak hasten dira.

Hain inportante izango litzateke hemen, egiten ez dakidan zerbait, ondo egitea (tentaturik maiz egon izan naiz aproba egiteko, baina beti utzi egin behar izan dut, ezinean), 68a guretzat zehatz-mehatz zer izan zen, argitzeko. Baina —bihoa orain aproba gisa bederen— 68a, batez ere isolatuta hartzen ez badugu, fenomeno guztiz konplexua izan zen, eta guretzat gehiago. Izan ere, batzuentzat liberazio bat bezala izan zen marxismo «ortodoxo»tik, marxismoaz halere biziki interesatuak jarraituz; beste batzuentzat marxismoaren lehenengo deskubrimendu masiboa eta faszinazio izan bide zen (ez da berdin marxismoa liburu batean aurkitzea, ala kalean garraiska eta saltoka); ez gutxienez, borrokaren barruan sortuak zeuden istiluengatik batik-bat, marxismoaren mehatxu eta agresio berri bat euskal mogimenduari. Dena batera, zenbaitzuentzat. Guztiontzat: kaos bat.

Historia egitera sartu gabe: gogora ETA-berriren eszisia 66-67an, Bandas-ko grebaren inguruan kalapitak berehalaxe eta euskararen esanahiari buruzkoak («ETA hace del euskera un fetiche»); Comisiones Obreras-etan integratzeko ahalegin zailak 68-69 aldera; **Saioak** taldea berehalaxe, Zelula gorriak, ETA-VI, Madariaga-ren irazpena eta Zuzendaritzako iskanbilak (elkarren deskalifikaziozko salaketa eta kontrasalaketak), geroxeago «Gatazka» izango zenaren interbentzioa, Branka, Etxabe... Burgos-ko Auzia. ETA-ren urteotako historia orain irakurtzen denean, ia labirinto buruhauskarri bat gertatzen da.

Zetorren bidetik zetorren ETA: tradizio eta doktrina abertzaleetatik. Borroka abertzale eta soziala batetegitea, kili-koloka artean ari zen orduantxe lortzen, tenika eta kraskadura mingotsetan, ez teorikoki eta ez praktikan ongi ezagutzen zen itsaso batean untziratzea bait zen, eta haundia zen desorientazioa.

3. 68 eztanda bat izan zen. «Iraultzak» ez zuen Boterea hartu. Zergatik ez, galdetzen denean, nik ez dakit erantzunik ba al dagoen. Sekula inork ez zuen pentsatu Boterea hartzea. Zer nahi zuelako baino, zer nahi ez zuen jendeak oso ondo bazekielako, esplotatu zen. Ez mendebaleko (kapitalista), ez ekialdeko (komunista) gizarteak nahi ziren. Esplosio batek ez du programa politikorik.

Baina zergatik esplotatu zen? Orain ez zait axola. Maiatzaren esanahia aipatu nahi nuen ezkerrean historian.

45an Mundu Gerra bukatzen da eta Europa txikituta dago. 60 aldera arte birreikuntza urteak izan dira. «Demokraziak» bapo kontsolidatzen dira. Kontent jendea. Ez da ahaztu behar: gosea eta miseria pasa duela. Horregatik, eta gerra hotzagatik, beroaren oroimen hurbilagatik, etab., eraikitzen ari den gizarte-eredu kapitalistak apenas aurkitzen du kontrakarririk. Buruz-buru kontra, komunistak bakarrik daude. Orain Europa-z ari naiz.



Mundua, ordea, bi partetan dago partitua: kapitalismoa eta komunismoa, eskuina eta ezkerria. De fakto ez dago komunismoa beste ezkerrik, hori garrantziko da, ezkerreantzat ez dago beste erreferentziarik. Eta marxismo (sobietar) ortodoxoa da doktrina zuzen bakarra.

Hori dena ez da guztiz egia: intelektual mailan behintzat bazeuden taldetxo eta aldizkari trotskista ahaleginkor askoak (Castoriadis); existentzialistak, Sartre eta, **Les Temps Modernes**; Frankfurt-eko Eskola; Mounier-en jarraiko pertsonalistak, **Esprit**. (Iragitzean galdetzeko: pertsonalismo horri al da, urbildu edo aitortu zaiola EE azkeneko Kongresuan? Ez bait naiz aklaratu). Anarkismoa ez zegoen inola ere agortuta. Komunismoaren barruan bertan bazeuden diferentziak: Garaudy eta Althusser Frantzia-n, Brecht edo Bloch Alemania-n, etab. Baina honek denak oraindik ez zion komunismoari bere batasun monolitikoa printzatzan eta ez zalantzan jartzen ezkerrean monopolio efektiboa gizartearen.

Buruz joan naiz izenak gogoratuz eta ez du deskribapen historiko doi-doirik izan nahi. 68aren anbiguo-

“Maiatzean Marx agintari gailen ez agertzeak ez du esan nahi, agintzen ez zuenik”.

tasuna erakustera nindoan. Izan ere, nik ikusi nuen bezala behintzat, alde batetik, iraultza bat eta marxismoaren apoteosi izugarri izan zen; bestetik, aldiz, benetan zebratu egiten zen marxismo hura, Alderdi eta sindikatueta inplantaturik zegoenaren arras bestelakoa zen. Orain batez ere orduko slogan eta pintada txispatsuak gogoratzen dira, festa alderdia. Nik gehien gogoratzen dudana, maiatzaren aurreko hilabeteetako marigora da, zenbat liburutegitto «gorri» hasi zen kaleetan agertzen, multikopiatzeko zenbat ganbara eta eztabaidarako bilzulo inprobisatu zen ikastetxe inguruetan, zenbat paper eta edizio pirata bota zen, nolako uholdea bapatean etorri zen Sobiet Batasun-etik, Alemania Demokratiko-tik, Txekoslovakia-tik, Marx, Engels eta Lenin-en obrekin merke eta eder asko. Prezio justuaz ez naiz oroitzen, baina milaka peseta pare batean Lenin-en obra guztien tomo pila eros zitekeen, frantsesez, huskeria batean. Neuk daukat.

Rabehl, Rudi Dutschke, Lefebvre marxistak ziren. Bakarrik, ez zuten onartzen eredu sobietar «autoritarioa». Beste «marxismo» jatorrago bat posible zela, uste zuten, librea eta liberatzailea.

Rudi Dutschke.



Eta hortik nire konklusioa. «Marxismo» hori gero ez da posible izan. Aitzitik, gertatu dena da, ortodoxia exigitzen zuen marxismoa bera (ofiziala), Marx-en edozein irakurkera jeloskorki bigilatzeko zuena, bera ere amore ematera beharturik aurkitu dela bere doktrinarismoan. Stalin kondentatuz hasi, kristaua eta marxista izan omen zitekeela etab. jarraitu, Lenin abandonatu («eurokomunismoak») eta «Alderdi Komunista Frantzesak ez da lkerketa filosofiko-koen Akademia bat» aitortzeraino. Doktrinaren berrikuntzarik egin baino, Alderdi Komunistak politika pragmatiko bat egitera sartu dira Italia-n, Frantzia-n, Espainia-n. Maiatzak behin eta betiko ridikulizatuta utzi zuen, politikan «ideologo» bakar baten obedienciaz ibiltzea. Beharbada batzuek ez zuten segituan ulertu. Baina laster inposatu zen. Doktrinak auzitan jarri eta eraldatu orde, baina, errezagoa izan da kontu horiek bazterreraz utzi. Kasik imagina ezinezkoa litzateke gaur, Alderdiaren Kongresuak Marx-en interpretazio-korronte filosofiko bat kondentatzea, edo bi interpretazio moduren artean (Garaudy-Althusser) bat hobestea eta ofizialtzea. «Doktrina» libre dago (nahi baduzu budista izan, ala gnostikoa): ortopraxia da, Alderdiak exigitzen dizun guztia. Testua galdu da.

Beste «marxismoa», berriz, maiatzkumea, testu gabe samar jaito zen eta gabe ari da. Jaito, Marx irakurri jaito zen, esan bezala, neurri handian. Baina Marx-en ondoan Bakunin eta Proudhon irakurtzeko enpatxurik gabe. 68ko maiatzean, ezker ofizialak (AK-ak), nolabait Marx «egiazkoaren» monopolio publikoa zutenak, distantziatu egin ziren eztanda gazte hartatik. Ondorioz, hasita zegoena, belaunaldi gazteek ezker klasikoan interesik eta konfiantzarik ez edukitzea, areagotu egin zen.

Maiatzean Marx agintari gailen ez agertzeak ez du esan nahi, agintzen ez zuenik. Gaur gogoratzen den eta pentsa daitekeen baino gehiago agintzen zuen. Bakarrik, Marx-ek agintzeak «Marx-ek bakarrik agintzea» significatzen zuen gizarte-giro batean, Marcuse bat nabarmenago geratzen zela, nahiz eta Marcusek zentzurik ez izan Marx gabe. Kontua da, Marx-ekin zer ulertzen den. Orduan, baina, Sobiet Batasuna eta Alderdi Komunistak ulertu nahi izaten ziren. Eredu eta Alderdiotatik aparte, beraz, maiatzaren ondoren «extremistak» esaten zaien mogimenduak sortu dira berehala Europa guztian, batzuetan armatuak, baina denak izango dira birrinduak edo zanpa-zanpatuak. Bestalde, taldeok sekula ez dute lortu benetan «grupuskuloak» izatea besterik. Harritzekoa ote da? Maiatzak porrot egin eta biharamunean, maiatziar batzuen antisia larria «organizatzea» zen. Organizazio faltagatik huts egin bide zuen iraultzak (abangoardia falta: Lenin!). Baina maiatz hartan zerbait irakurtzerik baldin bezegoen, ordura arteko organizazio eta indoktrinazio modu klasikoaren arbuio totala

zen hain zuzen. Gutxiengotxo euforiko txiki batzuen irtenbide gabeko ametsa izan zen, hortakoz, 1968 ondorenean 1917 aitzinera itzuli nahi izatea Europa-n. Alderdi Komunisten paralerroki eta konkurrentzian beste organizazio batzuk, iraultzaileago eta jatorragoak, eraikitzeke, teoria iraultzaile trinko batekin, antolaera herstu batekin, maiatz hark ez zuen ezer ematen. Alderantzizkoa ematen zuen erruz nondinahi. Halaxe, maiatzeko loreen fruitu bezala gero polliki-polliki sortuz etorri diren mogimenduak, mogimendu feminista, ekologista, bakezalea, kontsumitzaileen elkargoak, kontzientzi objektoreak, gay harrotasuna, testu oso diferenteekin sortu dira, baikoitza bere testu partikular mugatuarekin, agian testurik batere gabe hobeto.

(Ez naiz esaten ari, testurik ez dagoela edo ez dela behar borrokarako. Bakarrik, bertsolariak bezala, testua norberak asmatu behar izaten duela. Gurea guk, iraultza ez da ikasten. Eta ikasi egin behar izaten da, ikasten ez dela, zeren ta denok nahiago bait genuke, libururen batean ikasi ahal izango balitz edo Nicaragua-n Algeria-n, Cuba-n. Oraindik ez da asmatu Lenin eta Txé Guevara seriean produzitzeko makina).

4. Grezia-k Homero zuen, herrialde sakabana-tuak, uharte eta leinuak, helenitatean bateratzeko (hizkuntz nazionalismo grekoa aipatu ohi da). Israel-ek, Biblia. Mendebale kristauak bere Eskritura Santua eduki du. Herri mohamadenoek **Al Koran**-a. Ezkerraren testua Marx izan da, XIX. mendean eta oraintsu arte.

68ra iristen garenerako, testua nahikoa zarrastatu dago, egia esan. Alde batetik, desarroilo autonomoak daude: W. Reich, Marcuse, etab.; bestetik, marxismo sobietarraren kritika ugariak. Baina 68an konfiantza bazegoen oraindik «egiazko Marx» baitan eta «egiazko marxismo»an. Gogoratuko da, deskontentua eta pentsamendu kritikoa luzaro espresatu direla «egiazko marxismo» baten izenean («marxismo erreala»ari, horrela esaterik badago, zirkinik eragiteke, haatik). «Egiazko marxismo»aren bila saiatzaren aritu dira, pentsamenduan, trotskistak, **Socialisme ou Barbarie** argitaletxearen inguruan; berdin AKF-tik iraitzitako teoriko taldea **Arguments**-en inguruan (Kosta Axelos, E. Morin, F. Chatelet, P. Fougeyrollas, H. Lefebvre, etab.); Frantzia-n eta Italia-n Althusser eta jarraitunak, AK-en barruetan, etab. Praktikan, Txina-k, «egiazko marxismo» egiazkoago bat disputatzen dio Sobiet Batasun-ari, maoismoak erretzen hasten dira Europa-n zein Hirugarren Munduan. Beraz, testua xarpaildurik zegoen: 68an haizeak eraman zuen.

Txokagarria eman lezake. Baina ez nago hainbeste hain zuzen 68ari kalendarioran begira, luzararako signifikazioan baino.



“68an egon zenak, zerbaitetarako aukera izan bazuen, ez dagoela, ikastekoa izan zuen, denean berdin pentsatu beharrik, elkarrekin barrikadetara joateko”.

Zer egiten zuen euskal pentsamenduak? Hasieran, sekulako enpeinuarekin, besteek zegitenaren modura saiatu ginen eta egiten gu ere, «egiazko marxismoa» bilatzen (Krutwig-ek nolabait lehendik hasitako lana zen). Hau da, ahal genuen modura testua gure egoerara adaptatzen. Orduan, batek «barne kolo-nialismo»aren interpretazio eskema garatzen zuen, aldamenekoak egurka erasotzen zion bitartean (beste marxismo «egiazkoago» eta jatorrago baten izenean). Abertzaletasun marxistarik posible ba ote zen eta, batek Marx-i zaputuz egiten zion ez omen delako, besteak abertzaletasunari, hirugarrenak irakurketa «austromarxistago» bat enseiatzen zuen, biak posible egin zitezkeelakoan. Batek marxismo berriztatu «humanistago» bati ekiten zion; Althusser itzultzen eta zabaltzen zebilen bestea jo ta ke, marxismo «antihumanista» baten alde... Kakao bat. Baina bat. Hau da, denok berdintsu.

Ahalegin bortitza egin zen. Panfletoak eta aldizkari edo paper klandestinoak eta artikulak aparte, 70 eta 75 artean, ETA VI-tik LAIA-ren esziora arte alegia gutxi-gorabehera, ikus zenbat publikazio dagoen tankera honetakoa euskaraz bakarrik (ordena alfabetikoan, eta exhaustibo izateko asmorik gabe): A.J., Hizkuntza, etnia eta marxismoa, 1971; Kolakowski, 1972; Kultura proletarioaz, 1973; Iraultza sobietarra eta literatura, 1975. DOBB, M., Sozialismoaren frogantzak, 1971. FANON, F., Afrikar iraultzaren alde, 1970. GARATE, G., Marxen marxismoa, 1971; Marx eta nazioa, 1972; Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg, Leninen bizitza, 1974. GARATE, R., Lanaren antropologia, 1973. HIKMET, N., Lau



**Txabi
Etxebarrietari
omenaldia
Tolosan.**

gartzelak, 1971. IRALA, A., Bat bitan banatzen da, 1975. IZTUETA, P.-APALATEGI, J., Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian, 1974. LENIN; Estadua eta iraultza, 1973. MADARIAGA, J., Ekai-Arauketa dialektikorrari buruz, 1971. MARX-ENGELS, Komunita Alderdiaren Agiria, 1971; Lan alokatua eta kapitala, 1971; Sozialismoaren aurrerabidea utopiatik zientziara, 1972; Alderdi Komunistaren Manifestua, 1974. MEMMI, A., Kolonizatuaren ezagugarria, 1974. MENDIGUREN. X., Europako ezker berria, 1972. MUXIKA, L.M.: Gizartea eta parasozialismoa, 1975. PAGOLA, M., Marx eta erlijioa, 1971 TORREALDAI, J.M., Iraultzaz, 1973. UGALDE, M., Langileria historian zehar, 19871.

(Inor gomutatzen al da guzti horretaz? Antigualeko gauzak dirudite benetan).

Ez dut uste inork nahikoa askatasun genuenik, «testua»rekin aski libertatez operatzeko (seguruenik horregatixe izan gehien egin genuena egiteko ausart). Bakoitza, ezagutu zuen inguruaren eta momentuko irakurketen presioaren pean zegoen. Hala moduzkoak atera ziren gero produktuak berak. Batez ere, ordea, ez genuen ohartu, guk —berandu— deskubritu genuen eta adaptatzeko lehiatzen ari ginen testua, testurik ez zegoen lortzerik. Agian inondik ez. Agian testu gabeko denborak ziren hasiak. Edo, nolnahi ere, beste nolabait moldatu beharko ziren testuak aurrerantzean...

Ez bedi ahantzi: 68 ez da maiatza bakarrik. Vietnam da: Vietnam, ordea, ez da antiinperialismoa bakarrik, Txina-ren eta SESB-ren arteko tirabirak ere baizik. USA-ko errebolta beltza da (M. Luther King-en asasinatua eta «Pantera Beltzak»), arraza borroka bat, klase borrokaren eskemaren ondoan. Txe Guevara da, eta komunista ortodoxoen desaprobazioa Hego Amerika-n. Praha-ko udaberria da batez ere eta Txekoslovakia-ko inbasioa, abuztuan, mailu-

kada bat mendebaleko ezker guztien buruan. Maiatzaren eta abuztuaren artean galdu da definitiboki testua.

5. Denbora asko pasa da. Honez gero inor ez gaude, orduan geunden lekuan. Okerrena, orduan sortutako distantziamendu askok, oraindik iraun egiten duela, inork ez daki oso ondo zergatik, arrazoi haundirik ez da ikusten eta. Hain zuzen testua galdu denean, inportantzia gutxi dauka, zure irakurgai kuttunenak edo eskemak zeintzu diren, borroka berean elkartzeko, hein batean bederen, prest bagauden. 68an egon zenak, zerbaitetarako aukera izan bazuen, ez dagoela, ikastekoa izan zuen, denean berdin pentsatu beharrik, elkarrekin barrikadetara joateko.

68a gero Estatuak jan du. «Eztabaida dezagun dena», oihukatu bazen, orain Estatuak berak propagatzen du, «dena da diskutigarria», «eztabaidatu egin behar da dena», ideia denak diskutigarriak eta erlatiboak diren bitartean Boterea seguru bait dago. Horrela, ez da Estatu eztabaidan jartzen, hura eztabaidan jartzea eztabaidatzen da. Horrela, ezer ez da perfektoa, baina oraingoz posible perfektoena demokrazia hauxe iruditzen zaigu guri, erlatiboaren barruan, eta konforme ez bazaude, diskuti dezagun Parlamentuan, utz itzazu armak. «Iraultza sobietarra ez zen aski humanoa izan», alegia, «iraultza inhumanoa da»; «iraultza sobietarra ez zen aski bururaino joan», hots, «iraultzarik ez da posible, horiek utopiak dira». Ez egitamu sozio-ekonomikoak bakarrik, iraultzaren azken helburua pertsonak dira («Queremos las estructuras al servicio del hombre y no el hombre al servicio de las estructuras»: Odeon-eko graffitoa): ez zaitez eroa izan, ez dago bizitza sakrifika-tzea merezi duen helbururik. Norbaitek horman «no me liberen: yo me basto solo» idatzi zuen Nanterreren: ez al zaizue iruditzen antzeko zerbait entzuntsua duzuela azken denboran, beste intentzio batzuekin?... Gauza bera beti, nolabait, baina alderantziz. Labur-labur: «egizu maitasuna, ez gerra» (Vietnam). Orain: «egizue, bai, maitasuna, ez...» Estatuaren babespean, intelektual maiatzkumeak dira orain inteligenteenak.

Baina maiatza episodio periferiko bat izan zen euskal mogimenduarentzat. Mogimenduari berari bako, pertsona batzuei afektatu zien gehiago, zirkunstantziengatik. Zinez afektatzen diona, zalantza gabe, harrez geroko mundu kanbiatua da. Maiatz hartan, estudianteeek baino dexente gehiago poliziak ikasi zuen. «Demokraziek» elkarren estabilitateari eusten ikasi zuten. Boterearen propaganda aparato legitimatzaileek diskurtsu berri larrosazko bat ikasi zuten, permisiboa, tolerantzia, zuhurtasun gogoz beterikoa, bondadosa... a la Mitterrand eta Felipe González. Eta hortxe gaude.